

**INDUSTRIA IRAULTZA (5.zatia)****Industrializazioa eta biztanleria**

Adierazi esaldi bakoitza okerra ala zuzena den:

- Industria Iraultzaren eraginez, nekazariak hirira joan ziren lan bila
(1).....
- XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran ozeanoz haraindiko migrazioak egin ziren.
(2).....
- XIX. mendean, Europako biztanleriaren hazkundera bizkortu egin zen.
(3).....
- Biztanleria hazi egin zen XIX. Mendean, bestak beste, jaiotza-tasa igo egin zelako.
(4).....
- XIX. mendean, jaiotza-tasa jaitsi egin zen Europan.
(5).....

Klase-gizartea

Idatzi esaldi bakoitzaren ondoan dagokiona: aristokrazia ala burgesia

- Goi-mailako beste klasearen luxuzko bizimodua imitatu nahi zuen, eta garrantzi handia ematen zien itxurei eta balioei. (6).....
- Nekazarien gain zituen eskubideak kendu zitzaizkion, eta zergak ordaintzen hasi zen.
(7).....
- Hiria bizi zen, zabalguneko auzo berrietan. (8).....
- Gizarte industrial berriko klase boteretsua bihurtu zen. (9).....
- Administrazioako, armadako eta diplomaziako posturik prestigiotsuenak zituen.
(10).....



Bete hurrengo hutsuneak aukeratzen azpian dagoen taulatik:

Erdi-mailako klasea edo behe-(11)..... talde (12)..... bat zen, era askotako jendea hartzen baitzuen barnean: maisuak, eskulangileak, irakasleak...Haien balio nagusiak (13)..... eta (14)..... ziren, ondarea eduki nahi baitzuten. Hezkuntzari ere balioa ematen zioten era iritziz politiko (15)..... eduki ohi zituzten.

Behe-mailako klasean, gehienak, (16)..... ziren. Europako iparraldean eta mendebaldean, asko (17)..... ziren; kontinenteko hegoaldean, berriz, asko (18)..... ziren eta latifundioetan lan egiten zuten. Europako erdialdean eta ekialdean, nekazariak (19)..... izaten jarraitu zuten, XIX. mendearen erdialdera arte. Industria Iraultzarekin, (20)..... agertu zen. Langileak (21)..... gutxi eskatzen zuten lanak egiten zituzten, lanaldi luzez. (22)..... ere klase herritarrekoak ziren. Mirabeek oso soldata (23)..... kobratzen zuten eta enplegatzen zituzten familien ganbaretan bizi ziren.

jabeak	heterogeneo	moderatuak	nekazariak	baxua
jornalariak	burgesia	proletariotza	jopu	lana
prestakuntza	Etxeko zerbitzariak	aurrezteak		